

..

URTEKO LAUGARREN IGANDEA

Lehen irakurgaia

(*Etortzekoak diren denboretako profeta aipatzen du Moisek*)

Deuteronomia liburutik

18,15-20

Hunela mintzatu zen Mois Izrael herriari:

- 15 “ Jaunak, zuen Jainkoak, ni bezalako profeta sortuko du
zuen artetik, herritarren artetik: entzunazue.
- 16 Horixe da, Horeb mendian bildurik zineztela,
Jaunari, zuen Jainkoari eskatu zeniotena, erranez:
‘ Ez dut berriz entzun nahi Jaunaren, nere Jainkoaren mintzoa,
ez dut su handi hori berriz ikusi nahi, ez dut hil nahi!’
- 17 Orduan Jaunak erran zautan:
‘ Ongi daukat herriak diona.
- 18 Zu bezalako profeta sortaraziko dut beren haurrideen artetik;
nere hitzak ezarriko diozkat ahoan,
eta nik manatuko diotan guzia erranen diote.
- 19 Profetak nere izenean adiaraziko dituen hitzak
Onartuko ez dituenari, nik eskatuko diozkat konduak.
- 20 Bainan nik manatu gabeko
hitza nere izenean adiaraztera ausartatzen den profeta,
edo jainko arrotzen izenean mintzatuko dena,
profeta hura hilen da.’ ”

Kristo aitzineko 600 urte ingurukoa da testu hau. Ainitz profeta faltsu bazitakeen denbora haietan. Hemen errana dena da Jainkoak ez duela bere izenean mintzatzera nornahi uzten.

Lau puntu azpimarratuak dira irakurgai huntan. Lehena, gorago erran bezala, Jainkoak hautatua behar duela izan profetak. Huna zer zioen Jeremiasek: „ *Orduan Jeremias profetak Hananias profetari erran zion: - Entzun orai, Hananias! Ez zira Jaunak igorria eta gezurrezko fidantzia emaiten diozu herri huni* “ (Jr 28,15). Horrela Izraelgo profeta ez da inguruetako bertze herrietako profetak bezalakoa. Ez da azti edo sorgin bat. Jainkoa ez da geroa zer izanen den solasetan jostatzen.

Bigarrenik, egiazko profetak Izraelgo populukoa behar du izan, Izraeldarra. “...*sortaraziko dut beren haurrideen artetik.*“ Erran nahi baita Jainkoarekin elkargo finkatu duen populukoa behar duela izan profetak.

Hirugarrenik, profeta egiazkoak Jainkoaren hitza, den bezala, deus aldatu gabe, behar du zabaldu. « *Nere hitzak ezarriko diozkat ahoan eta nik manatuko diotan guzia erranen diote.* »

Laugarrenik populuarentzat zinez beharrezkoa da Jainkoaren hitz hori entzutea. “ *Profetak nere izenean adiaraziko dituen hitzak onartuko ez dituenari, nik konduak eskatuko diozkat.* “

Eta gaur egun profetarik ba ote da? Testamendu zaharreko profetak, zenbait bederen, etorri beharra zen Jesusez dira mintzatu. Jesus etorria izanez egungo profetek ez dezakete Jesus iragarri bainan bai hunen mezua oroitarazi eta barnatu. Alde hortarik Emmanuelle serora, Pierre apeza, Romero edo Helder Camara bezalako batzuek eragin handia izan dutela munduan ez ditaie uka.

Leloa : Guziek egun bihotzez dugun Jauna entzun.

**Zatozte, kanta Jainkoari,
Pizten gaituen Harrokari.
Joan gitziola soinuz ari,
Jaunari denak jauz kantari.
Zatozte, kanta Jainkoari
Pizten gaituen Harrokari.**

**Zatozte haren otoizteko,
Gauden ahuspez belauniko.
Jaunak eginak garelako,
Hura dugu bai denek Jainko.
Gu Jaunarena den jendea,
Eskuz dabilan artaldea.**

**Egun agian, zuek egun,
Jainko Jaunaren deia entzun.
Ez bihotz gogor, otoi, izan
Nola Meriban eta Mazan.
Aitek han gogor egin zuten,
Nik eginer hotz egon ziren.**

“Egun agian, zuek egun, Jainko Jaunaren deia entzun. Ez bihotz gogor, otoi, izan nola Meriban eta Mazan.” Maza eta Meriba ez dira karta batean ekarriak, orai Wadi Feiran deitu lekuan iragan da salmo huntan kondatua dena. Moises eta populua desertuan ziren eta han urik ez zen. Jendeak pentsatu zuen leku hortarat ekarriak izan zirela denak egarriz hiltzeko. Moisek arras gaizki hartu zuen populua fedea eskas hori, sinesten baitzuen Egiptotik atera zituen Jainkoak ez zituela hola beren ber utziko. Moises fedea horri erantzunez, Jainkoak harkaitz batetarik ura jalarazi zuen.

« Egun agian, zuek egun, Jainko Jaunaren deia entzun. » Lerro bakar hortan bilduak dira Izraelen goiti-beheiti guziak. Egiptotik ateratu eta basamortuan Izraelek bere Jainko libratzailea baitan behin baino gehiagotan dudatu zuen : Jauna gure erdian da, bai ala ez ? Bestela erran : konfiantza egiten ahal diogu ala ez ?

Bibliak erraiten dauku fedea, hain xuxen, Jainkoari konfiantza egitea dela. « Amen » hitzak, hebrearrez, « fermu, sendo, gogor » erran nahi du. Jainkoa sustengu sendoa da. Hartan fida daiteke. Izraelen fedea esperientziaren gainean finkatua da. Jainkoaren sekulako balentria ez ote zen izan bere herria Egiptoko esklabotasunetik ateratzea ? Hori egin bazuen, gero herria gosez eta egarriz hiltzera uzteko izaiten ahal ote zen ?

Jainkoa beti bermagailu fermua eta leiala dela jakiteak ez ote gaitu konfiantzaz (fedez) betetzen ahal ?

Bigarren irakurgaia

(Birjina Jaunarentzat)

Jondoni Paulok Korintiarreri 7,32-35

- Haurrideak,**
- 32 **nahi nuke griñarik gabe izan zaitezten.**
- 33 **Ezkongabeak Jaunaren gauzez du griña, Jaunari atsegin nola eman.**
- 34 **Ezkonduak, aldiz, munduko gauzez du griña, bere emazteari atsegin nola eman, eta bere baitan zatitua da.**
- 34 **Emazte ezkongabea eta birjina Jaunaren gauzez griñatzen dira, eta hari gorputz eta arima emanak bizi dira.**
- Ezkondua, berriz, munduko gauzez griñatzen da, bere senarrari atsegin nola eman.**
- 35 **Hau zuen onerako diot, ez zuek zepoan sartzeko.**

**Nahi nuke egokiena egin dezazuen,
osoki Jaunari atxikiak izan zaitezten.**

Judentzat gizonak bai eta ere emazteak zuzenez ezkondu behar zuen. “*Ez da on gizona bakarrik egoitea : doakion laguna eginen diot.*” (Has 2, 18) Benedikatu zituen Jainkoak erranez : “*egizue ume, ugaldu eta bete zazue lurra eta izan haren nagusi.*” (Has 1, 28)

Juduen artean ezkongabeak gutietsiak ziren. Bainan Paulo ez da hain hertsia. Lehenik, bera ez zen ezkondua. Libre nahi zuen izan Berri Onaren zabaltzeko. Harentzat oroz gainetik konda dena “*osoki Jaunari atxikiak izaitea*” da. Salbamenduaren historia bururat heldua da, Kristo etorri da Jainkoaren asmoaren betetzera, erran nahi baita gu denak haren baitan biltzera.

Paulok ez du hemen erakaspen berezirik emaiten ezkontzaz edo ezkongabetzaz. Ikusten du bakarrik ezkongabeak badirela Jainkoari eta besteei emanak. Ikusten ere badirela ezkonduak berekoiki bizitzen dutenak elgarren arteko amodioa, bizi izpirituala ahanzterainokoa. Batzu ala beste “*griñarik gabe*” bizi daitezela. “*Griña*” hitza bost aldiz ateratzen da testo labur huntan. “*Griñarik gabe bizitzea*”, “*Osoki Jaunari atxikiak izaitea*”, horra beharrena Paulorentzat...eta guretzat.

Ebanjelioa

*Alleluia, alleluia
Goretsia izan bedi Jauna, gure Jainkoa,
Ilunbetan daudenak goratik argitu ditu.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 1, 21-28

- 21 **Jesus eta dizipuluak Kafarnaumen sartu ziren.
Eta, larunbatean, zinagogarat joan eta irakasten hasi zen.**
- 22 **Haren irakaspenez harriturik zagon jendea,
nagusitasunez irakasten baitzioten, eta ez lege-irakasleek bezala.**
- 23 **Bazen, hain xuxen, zinagoga hartan
izpiritu gaixto batek hartu gizon bat; oihu egin zuen:**
- 24 **“ Zer behar duzu gutarik, Nazareteko Jesus?
Gure galtzera etorria ote zira?
Badakit nor ziren: Jainkoaren Saindua.”**
- 25 **Jesusek larderiatu zuen: “ Ixil hadi eta atera gizon horrenganik!”**
- 26 **Izpiritu gaixtoak inarrosi zuen gogorki,
eta orro handi bat eginez, harenganik atera zen.**
- 27 **Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka:
“ Zer dugu hau ? Irakaspen berria, nagusitasunez emana!
Izpiritu gaixtoeri ere manatzen diote, eta heiek obeditzen!”**
- 28 **Berehala Jesusen omena
Galilea aldeko bazter guzietarat zabaldu zen.**

Larunbata izanez Jesus zinagogarat joan da bere dizipuluekin. Horrek erakusten du Jesusek testamendu zaharreko legea betetzen zuela edozein bertze juduk bezala.

Bertzalde, iduri luke, Markek azpimarratu nahi ukan duela hemen Jesusen irakaspeneren garrantzia. Lauetan hitz hori erabilia da hemen : “*irakasten hasi zen*”, “*haren irakaspenez harriturik*”, “*nagusitasunez irakasten baitzioten*”, “*eta ez lege-irakasleek bezala*”.

Haustura bat gertatzen da hor lehengo irakasleen eta Jesusen artean. Salbatzaileak berak du orai hitza hartu eta ez da bakarrik hitza berria, hitz horrekin doa ere obra berria: izpiritu gaixto batek hartu gizona libratzen baitu. Erakaspenera behar du ere gizona libratu. Bertzenaz erakaspenera ele huts gelditzen da.